



TOLOSAKO
UDALA



TOLOSAKO UDALA ETA TOLOSA KOMUNIKABIDEAK, SL.
2015-2017 URTE ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Tolosan, bi mila eta hamabosteko apirilaren batean

BILDURIK

Batetik, Ibai Iriarte San Vicente, NAN: 72.487.486-L, Tolosako Udaleko (aurrerantzean Udala) alkatea, haren izenean eta ordeztu diharduena, horretarako behar bezala ahalmenak dagoelarik.

Eta bestetik, Ion Aldanondo Albisu, NAN: 34108860K Tolosa Komunikabideak SLren (aurrerantzean TK) izenean eta ordeztu diharduena.

Bi alderdiok lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

I.- Tolosako Udalak eta TKk bat egiten dutela euskararen biziberritze eta berreskuratzeko proiektuekin eta helburuekin, eta herritarren euskarazko informazio-bideak eraiki eta indartzearekin batera, horiek direla hitzarmen honen xedea eta funtsa.

II.- Infosare dela 28 kanala telebistaren eta irratia jabea eta ekoizpen-arduraduna.

III.- TK eratu euskarazko komunikabide-sare horren helburu nagusia, euskalgintzan diharduten beste eragile askorena bezala, euskararen normalizazio-

bidean ekarpen esanguratsua egitea dela, eskualdean sortzen den informazioa kudeatu eta komunikatuz euskaratik eta euskaraz.

IV.- TKk kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietan ere hedatzen dela, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Tolosako udala. Halaber, TK dela Tolosaldean euskarazko tokiko telebista emititzeko gaituta dagoen entitate bakarra.

V.- Beharrezkoa dela TKk aipatu eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta TKren arteko lankidetzak jardunean sakontzea.

VI. – Tolosako Udalak 2015eko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zuela TKri 2015-2017 aldirako emango dion diru-laguntza.

Hau guztia honela izanik, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzen dugu, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen helburua da TKk eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA. LANKIDETZA HITZARMEN honetan, TKk jarraian aipatzen diren ekoizpen-ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Eguneko 24 orduko telebista-emisioa urte osoan zehar.
- b) Produkzio propio berria emisio-orduen % 20 gutxienez izatea

HIRUGARRENA. TKk, bigarren klausulan aipatu ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatua, ...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren aurrerabideak eten gabe aztertuko dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.
- b) TKT komunikazio-taldearekin 2014an hasitako lankidetzak egitasmoa aurrera eramatea

LAUGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen bidez, Udalak proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- a) Osoko Bilkurak 2015eko otsailaren 24an onartutako diru-laguntzak emango dizkiola, alegia: 2015, 2016 eta 2017 urteetan 36.000 € urteko.
- b) Publizitatea: Udalak kontuan hartuko ditu TK bere publizitate-planifikazioa egiteko unean
- c) Sozializazioa eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzaren erakartzeko Udalak babesak emango dio TKri
- d) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jarria sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKk.

BOSGARRENA.- Udalaren eta TKren ordezkariak osatutako lan-taldeak urtero gutxienez bilera bat egingo du. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena egiteko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasunez, pluraltasunez eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta, bestetik, dokumentu honetako hirugarren klausulan hartutako konpromisoen betetze-maila aztertuko dira.

SEIGARRENA.- Udalak TKri eginiko diru-ekarpenaren %70a libratuko du dokumentazio hau entregatu eta hilabeteko epean:

- Urteko egitasmoa eta aurrekontua
- Zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria
- Aurreko ekitaldiko urteko kontuak dagokion organoak onartuta edo formulatuta

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntzaren gainerako %30a, jasoko du dokumentazio hau entregatu eta hilabeteko epean:

- Jardueren memoria, dirulaguntzarekin finantzaturako ekintzen azalpen xehatua eta kostua jasoko duena.
- Hitzarmenean ezarritako betebeharrak bere direla idazkariaren ziurtagiria.
- Memoria ekonomikoa, gutxienez dokumentu hauek bilduko dituenak:
 - Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea (Galdu Irabazien kontu xehatua)
 - Dirulaguntzaren xedea betetzeko egindako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak, jatorrizkoak edo, hala ez balitz, fotokopia konpulsatuak

- Diruz lagundutako jarduerak finantzatu duten diru sarreren eta dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.
- Zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

Edozein gisatara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremanak eguneratua egon beharko du.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Tolosa Udaleko alkatea

Ibai Iriarte San Vicente



Tolosa Komunikabideak SL

Xabier Saizar Ingidua

Behin-behineko udal idazkaria

Karmele Contreras Goikoetxea